

## FUNTSEZKO SOZIJETATEAK

Gure proiektuak funtziona dezan hainbat funtsezko sozietaterekin harremanetan jarri beharko gara. Lehenik eta behin, Zumaiako *Gertu* merkataria eta ostalari elkartearekin jardun beharko dugu; gure ekimenaren asmo nagusia Zumaiako merkataritza sustatzea izanik masa sozialaren ezinbesteko zati bat osatzen baitute bertako kideek.



Merkatari elkarte honen bitartez, gure plataforman parte hartuko duten enprekin harreman estua izango dugu. Proiektuaren hasieran, parte hartzeko interesa dutenak identifikatu eta beharrezko dugun informazio guztia lortu genezake; eta aurrerantzean ere, komunikazio kanpainatan edota bestelako promozio ekimenetan bidelagun izango dugu. Esan beharrik ez dago, proiektua martxan jartzen den unetik elkarte honetako kide diren merkataria guztiekin harreman-fluxu konstante bat mantenduko dugula; alde batetik eskuragarri jarri nahi dituzten produktuen eta hauen salneurrien berri izan beharko baitugu, eta izakinen egoera, salmenten kopurua, edota logistika gaiak etengabe eguneratu beharreko kontuak izango baitira.

*Gertu* Zumaiako merkataria eta ostalari elkartearekin batera, *Baleike* izeneko Zumaiako aldirikariarekin ere harreman estua izango dugu. Izan ere, oso irakurria da Zumaia mailan eta honek, gure bezerogai potentzialen profila ikusirik, ezagutarazterakoan eta ondorengo komunikazio kanpaina guztietarako ezinbesteko hedabidea izatea dakar. Horren truke, gure enpresa banatzaile lanetan ibiltzen den heinean, *Baleike*ko aldirikarien banaketa gure gain hartu dezakegu.

Gure online denda aurrera eramateko, informatikari espezializatu baten laguntza ere ezinbestekoa izango da; batez ere hasierako egitura sortu eta mantenu lanetarako. Beraz, informatika enpresa bat edo teknikari baten zerbitzuak kontratatu behar izango ditugu; eta beharra larria denean erantzun azkarra jaso ahal izateko harreman estua eskatuko digu honek ere.

Finantziario aldetik begiratuta, udaletxearekin izan beharreko harremana ere garrantzi handikoa da, honek kultura eta turismo/merkataritza sailetan hainbat diru-laguntza eskeintzen baititu sail bakoitza sustatzeko. Kultur alorrean ere zerbitzuak eskeiniko ditugunez, herriko kultur teknikariarekin ere harremanetan jarriko gara maiz, honek kudeatzen baititu kulturaren inguruan sortzen eta suertatzen diren hainbat ekimen, gure proiektuari ere eragin diezaiekenak.

Azkenik, Urola-Kostako Mankomunitatearekin ere harremana izango dugu, honek 25 urtetik beherako ekintzaileei diru-laguntzak ematen baitizkie proiektuak martxan jartzeko, eta laguntza horiek gure enpresarentzan oso lagungarri izan baitaitezke; online-denda sortzeko orduan adibidez.